

Merkatuaren segmentazioa

Proiektu hau bezero-talde zabalari dagokio; izan ere, egunerokotasunean izan ditzakegun arazoei irtenbidea emateko aukera emateaz gain, erabiltzaileen arteko harremana sustatzen du. Hori jakinik, interesatua egon daitekeen edozeinentzat zuzendutako proiektua da, azken finean, denok baititugu gure mugak eta denok behar baitugu noizbait laguntza horiek gainditzeko, eta era berean, denok izan gaitezke baliagarri besteen arazoei irtenbidea emateko. Bakoitzak bere ahuldade eta gaitasunak baititu eta elkarlanean indartsuagoak baikara.